

Ebazpena, 2020ko otsailaren 13koa, Finantza Politikako zuzendariarena, zeinaren bidez betetzen baita Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Aginduaren 8.2 artikuluan xedatzen dena. Agindu horretan, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia garatzen da, erakundeok horniduren kalkulu eguneratuan erabili beharreko interes-tasa teknikoari eta beste aldagai batzuei dagokienez.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan egun indarrean den araudiak zehazten du zer betekizun bete behar dituen aurreikuspen-planak dituzten BGAEek erabili beharreko interes-tasa teknikoak. Bereizi gabeko BGAEei dagokienez, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Aginduak, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia garatzen duenak, hauxe xedatzen du 8.2.a) artikuluan:

«2.– Ehorzketaren ondoriozko gastu eta zerbitzuengatik prestazioak ematen dituzten erakundeek hornidura hauek egin beharko dituzte:

a) Hornidura bat, ehorzketetatik eratorritako etorkizuneko ordainketen balio aktuarialaren eta bazkideek egin beharreko etorkizuneko kuoten balio aktuarialaren arteko aldearen hainbestekoa

Horniduren zenbatekoa aktuario independente batek kalkulatu beharko du, banakako kapitalizazio-sistema baten bidez eta metodo prospektibo bat aplikatuz. Nolanahi, erakundeak bazkideen adinaren arabera onartzen dituen kuota desberdinen zenbatekoan bitartez hornidura hori mutualizatzeko aukera ere egongo da. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailetik dagokion zuzendaritzak ezar ditzakeen betekizunekin bat etorritz, eguneratzeko interes-tasa erabiliko da kalkulu hori egiteko».

Interes-tasa hori ezartzeko, horniduren kalkulua egingo duen aktuarioak erabili beharreko gehieneko tasa ezarriko da urtero. Gehieneko interes-tasa hori elkarganatzeko metodo baten bitartez kalkulatu da, erakundeok abenduaren 26ko Agindura bildu aurretik zerabilten interes-tasan oinarrituta, eta kontuan hartuko dira BGAEok arautzen dituen Aginduaren xedapen iragankorrean xedatzen diren egokitzeko hamalau urteak. Elkarganatzeko metodoa Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunean dago argitaratuta, Araudia atalean.

Aurreko guztia horrela, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzak hau ebazten du:

1. % 1,6775 da gehieneko interes-tasa, 2019ko abenduaren 31n hornidura teknikoak kalkulatzeko aplikatu behar dutena Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Agindura biltzen diren bereizi gabeko entitateek. Agindu horren bitartez garatzen da, hain zuzen ere, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia.
2. 2019rako hornidura kalkulatzeko, interes-tasa bat lortu beharko da entitate bakoitzarentzat, baldintza bikoitz hau beteko duena: 2019/12/31ko horniduren zenbatekoa txikiagoa izango da 2018/12/31ko Txosten Aktuarialek ateratakoa baino, eta aldi berean 2018/12/31ko kontabilitate-hornidura baino handiagoa edo berdina; hau da:
$$2018\text{ko kontabilitate-hornidura} \leq 2019/12/31\text{ko Txosten Aktuarialek ateratako hornidura} < 2018/12/31\text{ko Txosten Aktuarialek ateratako hornidura}$$
3. Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunean argitara ematea aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko BGAEek erabili beharreko gehieneko interes-tasa teknikoak kalkulatzeko metodoa:
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/6021/eu_2300/adjuntos/2020/Methodologia-gehieneko-interes-tasa-kulatzeko.pdf
4. Hornidura teknikoak kalkulatzeko, entitatearen aktuarioak hauek bakarrik hartuko ditu kontuan, kuotei dagokienez: BGAEren biltzar orokorrean formalki onartu diren kuota-igoerak.
5. Hornidura teknikoak kalkulatzeko, entitatearen aktuarioak, prestazioei dagokienez, aurreikusitako KPI-hipotesia hartu beharko du kontuan kalkulurako.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 13a



Izpta. / Fdo.: Fco. Javier Arnaez Arrecigor
DIRECTOR DE POLÍTICA FINANCIERA
FINANTZA-POLITIKAKO ZUZENDARIA